

# euskara langai

Euskara Nafarroako alor sozioekonomikoan
El euskera en el ámbito socioeconómico de Navarra

MAYO 2022 MAIATZA

## Beraien hizkuntza-kudeaketan euskara kontuan hartzen duten Nafarroako enpresen elkargunea.

## Punto de encuentro de las empresas de Navarra que tienen en cuenta el euskera en su gestión lingüística.

euskarabidea

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

## EGITARAUA

### Maiatzaren 24an,
### Baluarte jauregian

**8:30-09:00** Dokumentazioaren banaketa.

**09:00 - 09:15**.
Jardunaldiaren aurkezpen instituzionala.
**Ana Ollo.** *Herritarrekiko Harremanetako Kontseilaria. Nafarroako Gobernua*

**09:15 - 09:40** Zertan da euskara Nafarroako arlo sozioekonomikoan?
**Mikel Arregi.** Euskarabidea- Euskararen Nafarroako Institutuko zuzendari kudeatzailea

**09:40 - 09:45**
Panel kolaboratiboen aurkezpena.

**09:45 - 11:00**
Nafarroako tokiko praktika onak.
- MAPSA (Edurne Elcano)
- Ederlan (Maitane Arrizubieta)
- Osasuna (Mikel Erbiti)
- Iturri Kontserbak (Josu Iturri)
- Oreka IT (Iraitz Perez de Goldarazena)
- Labrit Ondarea (Gaizka Aranguren)
- Top-Topa Shop plataforma (Felipe Saragueta)

**11:00 - 11:25** Atsedena.

**11:30 - 12:10**
SOLASALDIA: Nafarroatik kanpoko praktika onak.
- Lanabes (Jokin Larrañaga - Arabako Foru Aldundia)
- Euskaragileak (Ramon Mendiguren - Cikautxo)
- Indeus (Jasone Aretxabaleta - SPRI)

**12:10 - 13:00**
SOLASALDIA: Etorkizuneko arlo sozioekonomikoa irudikatuz.
- AJE Navarra (Oihane Larrañegi)
- Izarra tanatorioa (Mikel Idoate)
- TINC (Uxue Izco)

**13:00 - 13:25**
Jardunaldiaren ondorioak eta etorkizuneko erronkak.
- Elhuyar Aholkularitza (Maddi Etxebarria)
- Emun (Joseba Beltza)
- Ahize-AEK (Maialen Begiristain)

**13:25 - 13:30**
Itxiera.

## PROGRAMA

### El 24 de mayo,
### en el Palacio Baluarte.

**8:30-09:00** Entrega de documentación.

**09:00 - 09:15**
Presentación institucional.
**Ana Ollo.** *Consejera de Relaciones Ciudadanas. Gobierno de Navarra.*

**09:15 - 09:40** ¿En qué situación está el euskera en el ámbito socioeconómico de Navarra?
**Mikel Arregi.** Director gerente del organismo autónomo Euskarabidea / Instituto Navarro del Euskera

**09:40 - 09:45**
Presentación del panel colaborativo.

**09:45 - 11:00**
Buenas prácticas de Navarra.
- MAPSA (Edurne Elcano)
- Ederlan (Maitane Arrizubieta)
- Osasuna (Mikel Erbiti)
- Iturri Kontserbak (Josu Iturri)
- Oreka IT (Iraitz Perez de Goldarazena)
- Labrit Ondarea (Gaizka Aranguren)
- Top-Topa Shop plataforma (Felipe Saragueta)

**11:00 - 11:25 Descanso.**

**11:30 - 12:10**
COLOQUIO: Buenas prácticas fuera de Navarra.
- Lanabes (Jokin Larrañaga - Arabako Foru Aldundia)
- Euskaragileak (Ramon Mendiguren - Cikautxo)
- Indeus (Jasone Aretxabaleta - SPRI)

**12:10 - 13:00**
COLOQUIO: Imaginando el ámbito socioeconómico del futuro.
- AJE Navarra (Oihane Larrañegi)
- Izarra tanatorioa (Mikel Idoate)
- TINC (Uxue Izco)

**13:00 - 13:25**
Conclusiones de la jornada y retos de futuro.
- Elhuyar Aholkularitza (Maddi Etxebarria)
- Emun (Joseba Beltza)
- Ahize-AEK (Maialen Begiristain)

**13:25 - 13:30**
Cierre.

AGURRA

# "Euskara balio erantsia da"



**Ana Ollo**
Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria

Hizkuntza baten bizitasunerako arlo sozioekonomikoa funtsezkoa da eta, azken urteotan, izaera estrategiko hori aitortu zaio Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren hizkuntza plangintzan.

Euskarak, Nafarroako gizarteak erabiltzen duen hizkuntzetako bat baita, tokia du lan munduan, salerosketa harremanen esparruan, enpresen zerbitzuetan eta, oro har, jarduera ekonomikoan; eta egun hainbat enpresa daude euskara hala beren barne funtzionamenduan, nola kanpoko zerbitzuetan baliatzen dutenak eta testuinguru soziolinguistiko, sektore ekonomiko eta neurri askotarikoak direnak.

Halere, oraindik euskarak sustapen handia eskatzen du enpresa gehiagok euskara beren hizkuntza kudeaketan normaltasun osoz aintzat hartzeko modukotzat eta gizarteari eskaintzen dizkioten zerbitzuen balio erantsi erakargarritzat eta lehiakortasunerako gako garrantzitsutzat ikus dezaten.

Ikuspegi aldaketa horren alde eta euskara arlo sozioekonomikoko eragiletzat ikusarazten laguntzeko antolatu du Euskarabideak Euskara langai jardunaldi hau. Topaketa honek beren eguneroko jardueran euskara aintzat hartzen duten enpresen esperientziak erakusteko eta interesak nahiz beharrak identifikatzeko baliagarria izan nahi du.

Jardunaldi honek metatutako esperientziatik ikasteko eta elkarrekin aurrera egiteko bideak adosteko aukera eskainiko du.

SALUDO

# "El euskera es un valor añadido"

**Ana Ollo**
Consejera de Relaciones Ciudadanas

El ámbito socioeconómico es fundamental para la vitalidad de una lengua y, en los últimos años, ese carácter estratégico le ha sido reconocido en la planificación lingüística de Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera.

El euskera, una de las lenguas de la sociedad navarra, es utilizada en el mundo laboral, en el ámbito de las relaciones de compraventa, en los servicios empresariales y en la actividad económica en general; y hoy día existen empresas, de diferentes contextos sociolingüísticos, sectores económicos y dimensiones, que utilizan el euskera tanto en su funcionamiento interno como en sus comunicaciones externas.

Sin embargo, todavía el euskera requiere una gran promoción para que cada vez más empresas lo consideren como un valor añadido atractivo de los servicios que ofrecen a la sociedad y un importante elemento de competitividad.

Euskarabidea ha organizado la jornada Euskara langai para promover esta visión del euskera como agente socioeconómico. Este encuentro pretende servir para mostrar experiencias de empresas que, en su actividad diaria, tienen en cuenta el euskera, y para identificar intereses y necesidades.

Esta jornada ofrecerá la oportunidad de aprender de la experiencia acumulada y acordar caminos para avanzar juntos.

ELKARRIZKETA

**Mikel Arregi.** Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea

# "Enpresei euskara erabil dezaten lagundu nahi diegu"

EUSKARA SUSTATZEKO NAFARROAKO GOBERNUAREN PLANGINTZA ESTRATEGIKOAN, EUSKARAREN DIMENTSIO EKONOMIKOA JASOTZEN DA 2016TIK. EUSKARABIDEA – EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUARI DAGOKIO HORI KUDEATZEA ETA ARLO SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAK DUEN EGOERAZ ETA ZABALTZEKO DITUEN AUKEREZ MINTZATU DA MIKEL ARREGI ZUZENDARI KUDEATZAILEA.



**Nolakoa da Nafarroan arlo sozioekonomikoan euskarak duen egoera?** Euskara Nafarroako arlo sozioekonomikoan eragin txikiko hizkuntzatzat jo izan da eta haren sustapenaren alde egiten den edozein inbertsio gastu hustzat hartzeko nolabaiteko joera egon da. Hurbilketa horrek galarazten digu aberastasuna sortzeko eta garapenari eragiteko euskarak duen balioa eta ahalmena ikustea. Usteak uste, 2018an Euskarabideak ikerketa bat eskatu zuen, Euskarak Nafarroan duen dimentsio eta eragin ekonomikoaren ebaluaketa eta sustapenerako ekintzak, eta azterlan ho-

ENTREVISTA

**Mikel Arregi.** Director Gerente de Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera

# "Queremos ayudar a las empresas a que utilicen el euskera"

LA PLANIFICACIÓN ESTRATÉGICA DEL GOBIERNO DE NAVARRA PARA LA PROMOCIÓN DEL EUSKERA RECOGE DESDE 2016 LA DIMENSIÓN ECONÓMICA DEL EUSKERA. SU GESTIÓN CORRESPONDE A EUSKARABIDEA-INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA, Y SU DIRECTOR GERENTE, MIKEL ARREGI, QUE SE HA REFERIDO A LA SITUACIÓN DEL EUSKERA EN EL ÁMBITO SOCIOECONÓMICO Y A LAS POSIBILIDADES PARA SU PROMOCIÓN.

**¿Cuál es la situación del euskera en el ámbito socioeconómico de Navarra?** El euskera ha sido considerado como lengua de escasa influencia en el ámbito socioeconómico de Navarra y ha habido cierta tendencia a considerar como gasto cualquier inversión que se hace a favor de su promoción. Esta visión impide ver el valor y el potencial del euskera para generar riqueza y contribuir al desarrollo de Navarra. En 2018, Euskarabidea solicitó un estudio, Evaluación de la dimensión y del impacto económico del euskera en Navarra y acciones para su promoción en el sector económico,

rrek argi-itzalak agertu ditu: alde batetik, egun euskarak duen presentzia ahularen datu apalak; eta beste aldetik, arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko Nafarroan ditugun aukerak eta potentzialtasun edo gaitasuna.

**Zein dira euskarak Nafarroan dituen aukera nagusiak?** Orokorrean, euskara ez da lehentasunezko gaia Nafarroako sektore produktibo gehienentzako, baina hori esanda, badira euskararen inguruan aberastasuna sortzeko potentzialtasun agerikoak dituzten sektore batzuk, adibidez, arlo publikoa kenduta: sormen-industriak (web-atarien sorkuntza, esaterako), turismoa, txikizkako merkataritza eta, oro har, lehen sektoreko jarduerak (produktuen komunikazioa, promozioa eta etiketatzea garrantzizko alderdiak direla).

Badira euskararen inguruan aberastasuna sortzeko potentzialtasun agerikoak dituzten sektore batzuk.

Horretaz gain, Toki entitateekin eta gizarte eragileekin elkarlana ezinbestekoa da planifikazioa eraginkorra izan dadin.

**Arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko, zein baliabide edo tresna eskaintzen ditu Nafarroako Gobernuak?** Nafarroako Gobernuak, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren bidez, enpresetarako eta arlo pribatuko lantokietarako dirulaguntza publikoen deialdia du 2017tik. Dirulaguntzek enpresen eta sektore pribatuko jarduera ekonomikoan euskararen erabilera handitzea dute helburu eta, horretarako, enpresei beren euskara plana diseinatu eta gara dezaten dirulaguntza ematen da; edo euskara plana egitera iritsi gabe ere, euskararen presentzia eta erabilera handitzera zuzendutako ekintzak gauza ditzaten; bai eta euskara informazio eta komunikazio teknologietan lan dezaten. Iaz, guztira 16 enpresa aurkeztu ziren deialdira eta batek izan ezik, guztiek jaso zuten dirulaguntza. Eskatzaile kopurua urtero goraka doa eta, aurten, 22 aurkeztu dira.



que arrojó luces y sombras: por un lado, objetivó una débil presencia del euskera en este ámbito; y por otro lado, mostró las posibilidades y el potencialidad que tenemos en Navarra para fomentar el euskera en el ámbito socioeconómico.

**¿Cuáles son las principales oportunidades para el euskera en Navarra?** En general, el euskera no es un tema prioritario para la mayoría de los sectores productivos de Navarra, pero dicho esto, hay sectores que tienen una evidente potencialidad de generar riqueza en torno al euskera, por ejemplo, fuera del ámbito público: las industrias creativas (como la creación de portales web), el turismo, el comercio minorista y, en general, las actividades del sector primario (comunicación, promoción y etiquetado de los productos).

Hay sectores que tienen una evidente potencialidad de generar riqueza en torno al euskera.

Además, la colaboración con las entidades locales y agentes sociales es imprescindible para que la planificación sea efectiva.

**¿Qué recursos o herramientas ofrece el Gobierno de Navarra para fomentar el uso del euskera en el ámbito socioeconómico?** El Gobierno de Navarra, a través de Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera, cuenta desde 2017 con una convocatoria de ayudas públicas a empresas y centros de trabajo del ámbito privado. Las subvenciones tienen por objeto aumentar el uso del euskera en las empresas y en la actividad económica del sector privado. Para ello, se prevén ayudas a las empresas para la elaboración y desarrollo de planes lingüísticos; o sin llegar a elaborar un plan, para acciones dirigidas a aumentar la presencia y el uso del euskera en su actividad; así como para inversiones en TIC. El año pasado se presentaron a la convocatoria un total de 16 empresas, y a excepción de una, todas ellas recibieron ayudas. El número de solicitantes crece cada año y, este año, se han presentado 22.

KASU PRAKTIKOAK

**Mikel Erbiti | Osasuna**

## Euskara Plana klubeko guztiek bere sentitzea eta sinestea nahi dugu



## Queremos que todos los miembros del club se sientan parte del Plan de Euskera

Osasunako bazkideak dira klubeko erabaki garantzitsuenak hartzen dituztenak eta 2017ko Ohiko Batzar Nagusian onartu zuten kluba elebiduna izatea. Hortik aurrera, Ahize-AEKrekin lanean hasi zen kluba eta kanpo komunikazioa euskaraz bermatzeko ni sartu nintzen Osasunan. Kanpo komunikaziora bideratutako ekimenak egin genituen: euskara hutsezko sare sozialak sortu, webgunea euskaratuta eta eguneratuta izan eta bazkideei egin beharreko komunikazio guztiak elebidunak izaten hasi ziren.

Barne komunikazioari dagokionez, pixkanaka barruan zeuden langileek txipa aldatu zuten, burutu genituen ekimen guztiak euskaraz ere izateko.

Orain ditugun erronkak dira, batez ere, barruan dauden langile guztiek egunerokoan euskara ere kontuan hartzea, euskarazko zerbitzu gehiago eskaintzea eta euskarazko eduki esklusibo gehiago ematea.

Pozik gaude orain arte egindako bidearekin eta aurrera begira Euskara Plana klubeko guztiek bere sentitzea eta sinestea nahi dugu.

*Los socios de Osasuna son los que toman las decisiones importantes del club y en la Asamblea General Ordinaria del 2017 aprobaron ser un club bilingüe. A partir de ahí, el club empezó a trabajar con Ahize-AEK y yo entré en Osasuna para garantizar la comunicación externa en euskera. Realizamos iniciativas orientadas a la comunicación externa, creando redes sociales íntegramente en euskera, manteniendo la página web traducida y actualizada y comenzaron a ser bilingües todas las comunicaciones a la masa social.*

*En cuanto a la comunicación interna, poco a poco el personal del club cambió el chip para realizar todas las iniciativas también en euskera.*

*Los retos a los que nos enfrentamos son, sobre todo, que todas las personas trabajadoras del club tengan en cuenta el euskera en su día a día, ofrecer más servicios en euskera y aportar más contenidos exclusivos en euskera.*

*Estamos contentos con el camino recorrido hasta ahora y queremos que todos los miembros del club se sientan parte del Plan de Euskera.*

CASOS PRÁCTICOS

**Edurne Elcano | MAPSA**

## Enpresaren beharrak kontuan hartzen dituzten helburuak finkatu ditugu



## Hemos fijado objetivos que tienen en cuenta las necesidades de la empresa

MAPSA hagunak ekoizten dituen kooperatiba da, Orkoienen kokatuta dago eta Mondragon Taldekoa da.

2006an hasi ginen euskara planarekin, EMUN aholkularitzarekin elkarlanean. Aurretik ekintza solteak gauzatu genituen, baina diagnostikoa egin ondoren plana abiatu genuenetik, modu koordinatuagoan eta egituratuagoan dihardugu euskararen sustapenean.

Ibilbideari eta enpresari buruzko balorazioa egin genuen planaren 15. urteurrenean, iaz alegia, eta, aurten helburu estrategiko berriak finkatuta ari gara lanean. Egindako lanaren fruituak oinarri - Mondragoneko irizpideak, Mapsako hizkuntza politika, euskara eskolak IKA euskaltegiarekin eta planaren egitura-, enpresaren beharrak kontuan hartzen dituzten helburuak finkatu ditugu.

Orain artean probatu gabeko bidea da zehaztu dugun hauxe, baina dagoeneko ohartu gara gaur arte lortu ez dugun eremuetara eta jendearengana iristeko aukera izan dezakegula.

*Mapsa es una cooperativa de producción de llantas situada en Orcoyen y perteneciente al Grupo Mondragón.*

*En 2006 comenzamos con el plan de euskera en colaboración con la consultora EMUN. Anteriormente habíamos realizado acciones sueltas, pero desde el diagnóstico y la puesta en marcha del plan, trabajamos en la promoción del euskera de una manera más coordinada y estructurada.*

*La valoración de la trayectoria se realizó en el 15º aniversario del plan, el año pasado, y este año estamos trabajando con nuevos objetivos estratégicos. A partir de los resultados del trabajo realizado – criterios de Mondragón, política lingüística de Mapsa, clases de euskera con el euskaltegi IKA y estructura del plan– hemos fijado objetivos que tienen en cuenta las necesidades de la empresa.*

*El camino que hemos definido es un camino que hasta ahora no hemos probado, pero ya nos hemos dado cuenta de que podemos llegar a zonas y a público que hasta ahora no hemos llegado.*

KASU PRAKTIKOAK

**Maitane Arrizubieta | Fagor Ederlan Tafalla**

## Langileen euskarazko ezagutza handitzen joatea lehentasuna da



## Es prioritario aumentar el conocimiento de euskera de las personas trabajadoras

Fagor Ederlan Tafalla Tafallan kokatzen den industria enpresa da. 800 langile gaude bertan eta automoziorako burdinezko piezak egiten ditugu.

2012an hasi ginen Euskara Planarekin eta urte hauetan euskarari leku bat ematea lortu da. Bertako langileek normaltzat ikusten dute errotulazioa eta enpresako komunikazioak elebitan egotea. Euskara Planarekin hasi ginenean, baziren euskararen aurkakoak ziren iritzi batzuk eta horiek baretu dira, ikusi dutelako Euskara Planak ez duela inor bazterrean utzi nahi.

Langileen euskarazko ezagutza handitzen joatea lehentasuna da. Horretarako Euskara Eskolak aurrera eramaten dira, AEKren laguntzarekin.

Euskara Batzordea da Euskara Planerako ekintzak proposatu eta bideratzen dituena. Fagor Ederlan Tafallako sail eta gune desberdinetako kideek parte hartzen dute bertan. Hori garrantzitsua da guztien beharrak eta iritziak jasotzeko.

*Fagor Ederlan Tafalla es una empresa industrial ubicada en Tafalla. Contamos con 800 operarios y fabricamos piezas de hierro para automoción.*

*Comenzamos en 2012 con el Plan de Euskera y en estos años se ha conseguido dar un espacio al euskera. El personal local ve normal que la rotulación y las comunicaciones de la empresa estén en bilingüe. Cuando empezamos con el Plan de Euskera, existían algunas opiniones contrarias al euskera que se han calmado al ver que el Plan de Euskera no quiere excluir a nadie.*

*Es prioritario aumentar el conocimiento de euskera de las personas trabajadoras. Para ello se dan clases de euskera con la colaboración de AEK.*

*La Comisión de Euskera es la que propone y canaliza las acciones para el Plan de Euskera. En ella participan miembros de los diferentes departamentos y espacios de Fagor Ederlan Tafalla. Esto es importante para recoger necesidades y opiniones de todo el colectivo.*

CASOS PRÁCTICOS

**Josu Iturri | Iturri kontserbak**

## Gure helburua gure bezeroei zerbitzua euskaraz ematea da



## Nuestro objetivo es dar servicio en euskera a nuestra clientela

Barazki kontserbak ekoizten dituen familia enpresa da Iturri, Arroitzekoa. Hasiera hasieratik Errigora ekimenean aritu gara eta 2020tik Euskara Plana dugu martxan, Errigora eta EMUN aholkularitzaren laguntzarekin.

Gure helburua, lehentasunez, gure bezeroei zerbitzua euskaraz ematea da. Horretarako idatziz sortu izan dugun eta sortzen dugun guztia ele bietan jartzea nahi dugu batetik, eta, bestetik zuzeneko harremanerako euskaraz trebatzen ari da langileetako bat.

Lantegi berria eraikitzen ari gara eta bertako kartel guztiak ele bietan jartzeko lanean ari gara, webgunea baieuskarari.eusEUSKARAZLAN ETA BIZI euskaratu dugu, gure produktuen etiketak euskaraz jartzen dihardugu… Lan emankorra ari da izaten eta urrats gehiago emateko ilusioa daukagu.

*Iturri es una empresa familiar de Arróniz dedicada a la fabricación de conservas vegetales. Hemos sido parte de la iniciativa Errigora desde los inicios y desde el año 2020 tenemos en marcha el Plan de Euskera, con la colaboración de Errigora y la consultora EMUN.*

*Nuestro objetivo es, preferentemente, dar servicio en euskera a nuestra clientela. Para ello queremos que todo lo que hemos creado y generamos por escrito se ponga en bilingüe, y por otro lado, uno de los trabajadores se está formando en euskera para la relación directa.*

*Estamos construyendo una nueva fábrica en la que estamos trabajando para poner todos los carteles en bilingüe, traducir la página web al euskera, etiquetar nuestros productos en euskera… Está siendo un trabajo fructífero y tenemos la ilusión de dar más pasos.*

euskarabidea

Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua | AGENDA 2030

**Nafarroako Foru Komunitatean euskararen erabilera eta presentzia eremu sozioekonomikoan sustatzeko laguntzak.** Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuak, 2017tik, deialdi publikoa egiten du Nafarroako enpresei eta arlo pribatuko lantegiei euskararen erabilera handitzeko dirulaguntzak emateko. Dirulaguntza deialdi horretan enpresek euskara beren jardueran sartzeko aukera batzuk aintzat hartzen dira (4 modalitate bereizten dira). 2017tik hona, deialdira aurkeztu diren enpresa kopurua bikoiztu da, eta deialdiaren diru-hornidura ere nabarmen berretu da. Hona datuak:

**1. MODALITATEA:** lantokian euskararen egoeraren diagnostikoa egiteko eta lehendabiziko euskara planaren diseinua egiteko.

**2. MODALITATEA:** dagoeneko diseinatua dagoen euskara planeko ekintzak kudeatzeko.

**3. MODALITATEA:** euskara sustatzeko ekintzak solteak

**4. MODALITATEA:** euskarazko eduki digitalak (webguneak eta software aplikazioak) sortzeko inbertsioak zein horiek euskaraz erabiltzeko egokitze-lanak

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Partaide kopurua | 10 | 17 | 7 | 9 | 16 | 22 |
| Deialdiaren hornidura | 60.000 € | 80.000 € | 80.000 € | 100.000 € | 154.000 € | 222.000 € |

**Dirulaguntzaren onuradunak:** Nafarroako sektore pribatuko enpresak.

---

**Ayudas para fomentar el uso y la presencia del euskera en el ámbito socioeconómico en la Comunidad Foral.** El Instituto Navarro del Euskera - Euskarabidea realiza desde 2017 una convocatoria pública de ayudas a empresas y lugares de trabajo del ámbito privado de Navarra para incrementar el uso del euskera. En esta convocatoria de subvenciones se contemplan diversas posibilidades que las empresas tienen para incorporar el euskera a su actividad (se diferencian 4 modalidades). Desde 2017 se ha duplicado el número de empresas que se han presentado a la convocatoria e, igualmente, ha aumentado notablemente la dotación económica de la convocatoria. Los datos son los siguientes:

**1ª MODALIDAD:** elaboración del diagnóstico de la situación del euskera y del primer diseño del plan de euskera.

**2ª MODALIDAD:** gestión de las acciones previstas para la ejecución del plan de euskera.

**3ª MODALIDAD:** acciones puntuales para aumentar la presencia y uso del euskera.

**4ª MODALIDAD:** inversiones destinadas a la creación de contenidos digitales en euskera (webs y aplicaciones software), así como a la adaptación para su uso en euskera.

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Participantes | 10 | 17 | 7 | 9 | 16 | 22 |
| Dotación partida | 60.000 € | 80.000 € | 80.000 € | 100.000 € | 154.000 € | 222.000 € |

**Beneficiarios de la subvención:** empresas del sector privado de Navarra.